

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

4
positibo berri
2.293
positibo guztira*

1.605
hildako

10
UCIn

*Hernanin 64 Astigarragan 21

NAFARROAN

21
positibo berri

5.403
positibo guztira

3
UCIn
Sendatuak EAEn: 17.892. Naf.: 8.959

San Joanetako egunei doinua jartzen jarraitzeko, bertso jaialdia, Kilimak taldea eta Xabi Solano

Goizean txistulariak eta arratsaldean, bertso jaialdia izango da 18:30etan, Atsegindegin. Gero, bi kontzertu izango dira kiroldegiko pistan, 20:00etatik aurrera: Kilimak eta Xabi Solano.

HERNANI SAN JOANAK

Aurtengo San Joanetako egunak gazi-gozaok ari dira izaten, hernaniar guztientzat. Izan ere, ez dira ohiko moduan ospatu, baina jaiak kulturaz eta giro onean gozatzeko aukera ezinhobea eskaini du Udalak, Jai Batzordearekin batera. Elkarlanean aritu dira herriko kultur eragileak eta kultur arduradunak, eta egitarau berezia prestatu dute, datozten egunetarako.

Atzoko egunean Xabier Lertxundi alkateak herritar guztiak agurtu zituen, streaming bidez. Omenezko suziriak ere izan ziren, egitarauari hasiera emateko. Eta urtero lez, Txistulari Bandak, Musika Bandak eta Musika Eskolako taldeek kaleak alaitu zituzten, goizean eta arratsaldean.

Bertso jaialdia, Kilimak eta Xabi Solano, arratsaldean

«Gure herrian merezi duen lekua» eman nahi izan diote antolatzaileek kulturari, eta goizetik

hasita egongo dira ekitaldi eta ospakizunak. 09:00etako Dianan hasiko dira txistulariak eta Musika Banda auzoak esnatzen.

Arratsaldean ez da aspertzeko unerik izango, 18:30etan bertsolarien txanda izango baita, Atsegindegin. Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi izango dira bertsotan, eta Eli Pagola gai jartzaile lanetan izango da.

Gero, Kilimak taldeak hartuko die lekukoa bertsolariei, 20:00etan. Rumba flamenkoa eta swing doinuak gozatu ahal izango dira, kiroldegiko pistan. Gainera, talde hernaniarrak bihar du 29. Gaztea Maketa Lehiaketako finala, Victoria Eugenia antzokian. Gaztea irratiak 30 urte bete ditu aurten, eta antolatu duten lehiaketan 100 taldek baino gehiagok hartu dute parte. Guztien artean onenetarikoak izan dira Kilimak taldekoak, eta bihar «Euskal Herriko musikari edo bakarleri onena» bihurtzeko aukera izango dute.

Gaurko bigarren kontzertua, 21:15etan hasiko da. Xabi Solano Maizak izango da tabladuan, Aukeran dantza konpainiako dantzariak lagunduta.

Azkenik, biharko plangintzan ere musikak bere lekua izango du. Kasu honetan, 20:00etan hasiko da kiroldegiko pistan Bitartean Folk taldearen Kreole CD berriaren aurkezpen-kontzertua. Bertan behera gelditu da, ordea, Iñaki Salvador, Garbiñe Insausti eta Nahia Valleren kontzertua.

Jende pilaketak ez egoteko kontrola zorrotzu du Udalak
Udalak jakinarazi du antolatutako ekitaldi guztiak mugatuak izango direla eta horregatik, sa-



Txistulari Banda eta Musika Banda herriko auzo eta kaleetan ibili ziren atzo, goizean eta arratsaldean.



Segurtasun neurriak errespetatuta, musika izan zen protagonista nagusia 'Epa Txiki' emanaldian.

rrerak aldeztu aurretik eskuratu behar izan dira, emanaldietara joateko.

Horretarako, alkateak eta Merkataritza arloko zinegotziak herriko ostalariekin bilera egin dute, «ardura hori konpartitze-

ko». Adierazi dute tabernetako ordezkariak «konpromisoa» hartu dutela afora kontrolatzeko eta segurtasun neurriak betetzeko. Udalak, bere aldetik, jakinarazi du Udaltzaingorekin presentzia eta kontrola indartu-

ko duela kalean.

Azkenik, Udalak eskaera egin die beste urteetan kanpotik herriko jaiak erakarrita etortzen direnei: «mesedez, haien herrietan gelditu daitezten, Hernanira ez daitezela etorri». **K**

EGITARAUA

GAUR

09:00

Diana kaleetan eta auzoetan.

12:00

Musika Banda eta Txistularien Banda kaleetan eta auzoetan.

18:30

Bertso jaialdia, Atsegindegin.

20:00

Xabi Solano, kiroldegiko pistan.

21:15


Kilimak taldea, kiroldegiko pistan.



Ogi egin berria
beti zure eskura

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00



EGURALDIA
GAUR
Bero egiten jarraituko du gaur. Hala ere, egunaren bigarren zatian hodei gehiago espero dira. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da, baina arratsaldetik aurrera brisa sartuko da kantauri isurialdean eta beroa arinduko du. **Min.19° / Max.28°**

BIHAR
Hodeiak ugarituko dira eta ezegonkortasuna nagusituko da. Zerua nahiko lainotuta egongo da eta arratsaldean zaparradak eta ekaitzak espero dira. Mendebaldeko haizea ibiliko da eta tenperaturaren jaitsiera nabarmenagoa izango da. **Min.18° / Max.26°**

ARGITARATZAILEA
DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarraigako Udala

Erretxusko Auzo Urtia

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Aguado** Nagusia, 21 (Astigarraga) **943 550327** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKO JAKINTZARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Partaidetza altua izan da, Astigarraigako Emakumeon plazako murala apaintzeko argazki saioetan.

Emakumeon plazako murala osatzeko ekimenak, «partaidetza ikaragarria»

Guztira 140 partaide izan dira, eta Udalak «eskerrik beroenak eman nahi dizkie parte hartu duten emakume guztiei».

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Martxoan abiatu ziren Emakumeon Plazako murala osatzeko argazki saioak. Ekimenaren helburu nagusia zen «Astigarraigako emakumeen indarra, aniztasuna eta ahala ikusarazi eta sinbolizatzea».

Deialdia egin eta egun gutxitan 257 izen-emate jaso ziren, eta berehala hasi ziren argazkiak egiten, Nagore Legarreta

argazkilariarekin. «Partaidetza ikaragarria izan da», azaldu du Udalak. Hala ere, osasun larrialdi egoerak eten eta ekainera arte ezin izan zaio berriro heldu, murala apaintzeko prozesuari. Zenbait partaidek diote, «pena haundiz» egon direla argazki saioetara joateko aukera izan ez dutelako.

Bestalde, argazki saioak amaitu badira ere, Emakumeon plazako eraikitze-lanek aurrera

jarraitzen dute. Esan dute Udalaren asmoa dela «aurrerago elkartu, ateratako argakiak ikusi, partekatu eta partaide bakoitzak bere oroigarria izatea».

«Emakumeon plaza herriko emakume guztiek osatzen dute»

Hori da Astigarraigako Udalak adierazi duena: «argazkietako irudietan azaldu edo ez», Astigarraigako Emakumeon plaza herriko emakume guztiek osatzen dutela. Izan ere, hori da ekimenarekin ikusarazi nahi dutena: genero honen indarra eta presentzia. **K**

Gari Arruarte gerturatuko dute

2012. urtean gaitz larri bat diagnostikatu zien euskal preso hernaniarrari, eta 8 urte beranduago Almeriako espetxetik Soriakora hurbiltzea lortu dute.

HERNANI PRESOK

Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak jakinarazi du Gari Arruarte hernaniarra Almeriako espetxetik Soriakora traslatatuko dutela, Euskal Herriko hurbilago. Gorka Lupiañez euskal preso ere Salamancatik

Logroñora hurbilduko dute.

Gorka Loran hernaniarra-ekin batera atxilotu zuten Arruarte, eta jada hamasei urte baino gehiago daramazki kartzelean. Egun gaixotasun larriak dituzten presoek zerrendan dago, 2012an 'espondilitis ankilopoietikoa' diagnostikatu

ziotelako. Gaitz larria duelako aske uzteko eskaera egin zuen Arruarte epaitegi espainiarrei, baina orain arte ez du erantzunik jaso. Azkenean, Soriako kartzelera gerturatzea akordatu dute.

Guztiagatik, ostiralean Plaza Berritik hasita giza-kate mugikorra antolatu dute, 20:00etan. **K**

II. Zikuñaga Papelera Torneoa egingo da

HERNANI PILOTA

Astelehenean hasiko da eskuz binaka jokatzeko txapelketa honen bigarren edizioa, C.D.Hernanik antolatuta. Egunean 3 partiduko jokatu dira eta aurten 51 bikote ariko dira frontoiean, sei kategoriatan banatuta: kadeteak, jubenilak eta seniorrak, lehenengo eta bigarren mailan. Egunero izango dira partiduko kiroldegiko frontoiean eta finalak igandean ospatuko dira.

Nerabeen gurasoekin bilera, gaur

ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Astelehenetik aurrera udako ekintzak hasiko ditu gaztelekuak. Ziurtatu dute «osasun eta higie neurri guztiak bermatuak egon daitezela» errespetatzeko egokitze plan propioa burutu dutela. Gainera, asteazkenean 18:00etan parte hartuko duten nerabeen gurasoekin bilera informatiboa egingo dute, kultur etxe zaharrean. Gurasoek aldundiak eskatutako dokumentu batzuk ere sinatu beharko dituzte, beraz, «garrantzitsua da bertaratzea».

Hileko azken ostiraletan, Aztifemiekin zita

ASTIGARRAGA BERDINTASUNA

Aste honetatik aurrera, hileko azken ostiralero elkartuko dira *Aztifemiak*, Astigarraigako emakumeak. Hainbat gai landuko dituzte bertan: emakumeen ahalduntzea, patriarkatua, sexualitatea eta gorputzarekin zerikusia duten gaiak. Ostiral honetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean bilduko dira, herri eskolako aretoan. Diote, «errespetuzko, entzuteko eta umore oneko» giroa izango dela.

Santiotako Jai Batzordeko bilera, bihar

ASTIGARRAGA FESTAK

Udaleko ordezkariak eta herriko zenbait talde eta eragilek bilera egingo dute bihar, festetan zer egingo duten erabakitzeko. Izan ere, ez dute ezer zehatzik erabaki, oraingoz. Jakinarazi dute festak ez direla egingo aurten, baina kultur ekintzak egiteko asmoa dute.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskola jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

ESKAINITZA
24 botilako kaxak: 50€

San Juan hauetan zintzo demonio, e!

Eskaerak egiteko:
otsaihen@gmail.com **623 229 297**

edarietxea

Zatoz eta probatu gure ardatzak diren berezitasunak:

- ARDOA
- GARAGARDOA
- KAFFE EZBERDINAK
- TERAPIAK
- BAZKARI ETA AFARIAK

Andre kalea, 33 Hernani
943 12 84 03 / 681 394 083

CEPA Hernani HHI

Helduen hezkuntza

Matrikula epea ekainaren 22tik 30era arte

Matrikula egiteko bi modu:

943 33 53 18 **012076aa@hezkuntza.net**

Ordutegia: 10:00 - 14:00

- DBH-ko **TITULUA** lortu
- Hizkuntzak: Ingelesa
- Zure ikasketak jarraitu
- Atzerriarrentzako gaztelera